## 3. Helburuen definizioa. Erronkak (hobetzeko eremuak) helburu bihurtzen

ADIBIDEA

| ERRONKAETATIK - HELBURUETARA | | |
|---|---|---|
| **ANALISIAREN ONDORIOAK** | **KONPETENTZIAREKIN LOTURA** | **HELBURUA ZEHAZTU** |
| **Hobetzeko eremua 1:** Harrera plana berritu, hobetu | K-2: Eraldaketarako antolaketa<br>K-7: Elkarbizitza positiboa | Familia guztiek gure ikastetxean lekua dutela sentitzeko prozedurak adostea, idaztea eta garatzea, eskola-komunitateko kideen parte-hartzea errazteko guneak eta uneak sortuz. |
| **Hobetzeko eremua 2:** Ikas-irakaskuntza prozesuko emaitzak aztertzeko prozedura definitu eta hedatu. | K-3: Lidergo pedagogikoa<br>K-5: Ikasle guztien arrakasta<br>K-8: Elkarrekin ikasten duen komunitatea | Ikasleen emaitzak aztertzeko prozedura sistematizatzea,<br>Irakasle-taldearen parte-hartzea sustatuz, ikasleen beharrizanetara egokitzeko eta irakas-praktikan hobekuntzak eragiteko. |
| **Hezkuntza Sailaren Ildoa:** Curriculum berriaren ezarpena | K-3: Lidergo pedagogikoa<br>K-5: Ikasle guztien arrakasta | Curriculum berriak eskatzen dituen egokitzapenak gauzatzea, ikastetxeko dokumentu ezberdinetan jasoz, ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko. |
| ... | ... | Zer? Nola? Zertarako? |

ikus 5. txantiloia

| | |
|---|---|
| **S**PECIFIC | **ZEHATZA**. Ahalik eta xehetasun handienarekin deskribatu behar du lortu nahi dena. |
| **M**EASURABLE | **NEURGARRIA**. Neurtzeko moduko helburua zehaztu behar da. |
| **A** CHIEVABLE | **LORGARRIA**. Eskura egon behar da, ezinezkoak baztertu behar dira. |
| **R** ELEVANT | **ESANGURATSUA**. Lortzeak, aurrerapausua izan behar du erakunderako. Ikaslea erdigunean |
| **T** IME BASED | **DENBORAN MUGATUA**. Hasiera eta amaiera definituak egon behar dira. |
| (**S**OCIAL) | **SOZIALA**. Hezkuntza komunitatearen ikuspegiarekin. |

### HELBURUA LEHENETSI

helburu guztiak ikastetxeko beharren eta egingarritasunaren arabera ordenatuko dira

| |
|---|
| **1. Helburua:** Familia guztiek gure ikastetxean lekua dutela sentitzeko prozedurak adostea, idaztea eta garatzea, eskola-komunitateko kideen parte-hartzea errazteko guneak eta uneak sortuz. |
| **2. Helburua:** Ikasleen emaitzak aztertzeko prozedura sistematizatzea, irakasle-taldearen parte-hartzea sustatuz, ikasleen beharrizanetara egokitzeko eta irakas-praktikan hobekuntzak eragiteko. |
| **3. Helburua:** Curriculum berriak eskatzen dituen egokitzapenak gauzatzea, ikastetxeko dokumentu ezberdinetan jasoz, ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko. |
| **4. Helburua:** Ikastetxearen funtzionamendua hobetzea, modu kolaboratiboan lan-eginaz eta ardurak modu koherentean banatuz, taldean hartutako erabakiak eraginkorrak direla bermatzeko. |
| **5. Helburua: ...** |